

HITZ BITAN

Agentziak | PARIS

Hondar eremu amaigabeek, eremu horiek bere baitan gordetzen dituzten bat-bateko arrisku eta ustekabeek erabakiko dute Paris-Dakar rallya aurrerantzean ere. Basamortuko lege zurrinak jarraituko du agintzen munduko rally gogorrean, eta ez Parisko epaitegi batean eroso jezarritako epaile dotoreek, rallyen ezagutza zuzena izan gabe garaile eta galtzaileak erabakitze ahalmena dutenek.

Hilabete eta erdi pasatxo da Paris-Dakar rallya Dakarko (Senegal) hondartzan amaitu zela. Jutta Kleinschmidt gidari alemaniarra (Mitsubishi) igo zen podiumeko eskailera garaierera. Baina giroa arras gaiztotua zen ordurako, Jean Louis Schlesser frantziarrak (Schlesser) rallyko sailkapen nagusia errekurritzea erabaki zuelako Nazioarteko Automobilismo federazioan. Schlesserri ordubeteko zigorra ezarri zioten rallyko komisarioek, proba amaitzeko bi etapa falta zirela, irteera puntuko arauak hausteagatik, baina gidariak, arauak muzin egin zela onartuta ere, zigorra gehiegizkoa zela adierazi zuen.

Kleinschmidtek pozarren ospatu zuen garaipena, basamortuan irabazitakoa epaitegietan

Basamortuak agintzen jarraituko du

PARIS-DAKAR RALLYA. Nazioarteko Automobilismo Federazioak Schlesser gidari frantziarraren apelazioa ezetsi du; Jutta Kleinschmidt alemaniarra da 2001. urteko rallyko behin betiko garailea

ez zuela galduko sinetsita. Eta hala izan da. Jakitun baitzen lasterketa bateko komisarioen erabakia aldatzea oso konplexua dela.

Epaitegiak errekurtsioa onartu du, baina eskaera ukatu

Nazioarteko Automobilismo federazioko apelazio batzordearen ebazpenean, Schlesserrek egindako errekurtsioa onartzen da, baina hark egindako eskaera —komisarioek ezarritako ordubeteko zigorra kentzea, eta ondorioz, Paris-Dakar rallyko garaile izendatzea— ukatu egiten da. Adituen esanetan, konponbide errazena egoera bere horretan uztea zen, bestelakotan, errekurtsioak gora, errekurtsioak behera, behin betiko erabakiak oso luze jo zezakeelako.

Haserre mintzatu zen ebazpenaren berri izan ostean Schlesser: «Atzo, epaileei gure argudioak azaldu genizkienean, baikor nintzen, baina orain guztiz harrituta nago». Abokatua erekin mintzatu, eta aurrerantze-



SEYLOU / EPA

Jutta Kleinschmidt gidaria (Mitsubishi), garaipen keinua egiten Paris-Dakar rallya amaituta.

an eman ditzaketan pausoak aztertzen jardungo zirela esan zuen.

Hausnarketa interesgarria eta zuzena egin zuen, oster,

Ulrich Brehmerrek, Mitsubishi auto etxeko abokatuak: «Epaitegiak erabaki logikoa hartu duela deritzot. Kirol botereak arazo handiak ditu kirol politi-

koaren pare ez jarduteko, presioak saihesteko, ustelkeriarik gabeko ebazpenak emateko, eta erabakiarekin hori lortu duela uste dut».

HITZ ETA PITZ



CRISTINA PETITE

(Atleta)

«Lisboako Mundialera marka ona egitera noa postu ona egitera baino gehiago»

LOSANTOS OMAR

(Real Madril-Bartzelona partidua zuzendu zuen euskal epailea)

«Gauza asko esango nituzke baina ezin dut, ez naiz horrelakoen zalea eta ez da hau une aproposa»

ROBERTO HERAS

(US Postaleko txirrindularia)

«Tourrean, Armstrongi lagundu eta ikasten saiatuko naiz»

TXIRRINDULARITZA. Atzo aurkeztu zuten Madril



MONDELO / EFE

Indurain bizikleta elektrikoan orain

Bost aldiz jarraian Frantziako Tourra irabazi ostean, zeregin lasaigoetan dabil orain Miguel Indurain. Atzo Alcobendasen (Madril) izan zen Jorge Martinez Asparrekin —hark lau bider irabazi zuen Munduko Motoziklismo Txapelketa—, Aprilia moto-etxeak egin duen bizikleta elektriko berria probatzen (argazkian biak). «Ez dago bizikleta hau batere gaizki, baina ez dut uste Tourmaleta bezalakoak igotzeko oso egokia denik. Hirian ibiltzeko edo bihotzeko arazoak dituztenentzat aproposagoa da», esan zuen Miguel Indurainek.

ATLETISMOA

Munduko Kros Txapelketa Dublindik Brusleara aldatu dute, aheria dela eta

Irlandako Gobernuak Munduko Kros Txapelketak bertan behera uztea erabaki du, aheria zabal ez dadin hartutako beste zenbait neurriekin batera. Hilaren 24an eta 25ean ziren jokatzeak aipatu txapelketako lasterketak Dublingo Leopards-towngo zirkuituan, baina Irlandako Gobernuaren erabakia ikusita, Nazioarteko Atletismo Federazioak Mundiala Bruselara aldatzea erabaki du. Data bere horretan mantendu dute

SASKIBALOA

Malone eta Stockton bikain Utha Jazzen

Utah Jazzek NBAko aurtengo titulua lortzeko hautagaien artean dagoela erakutsi du berriro azken jardunaldian. Atlanta hartu zuten mendean (109-102), eta erabakigarria izan zen, beste behin, Karl Malone eta Jon Stockton beterranoek egindako lana.

TXIRRINDULARITZA

Lasarte Oriako Zirkuitua igandean

Gaur aurkeztuko dute XVII. Lasarte Oriako Zirkuitua Dana Ona erretegian, zenbait txirrindulari profesional zein afizionatu bertan direla (19:30), eta igandean korrituko da (9:30). Elite eta Sub 23 mailako proba da, eta Espainiako Koparako baliagarria.

FUTBOLA

Klubn Arteko Munduko Txapelketa Coruñan hasiko da uztailaren 8an, Deportivo-Boca Juniors partidarekin

Coruñan bertan egin zen atzo Klubn Arteko Munduko Txapelketarako zozketa, eta aurreneko partidua Deportivo eta Boca Juniorsen jokatuko dute uztailaren 8an. A multzoan daude Deportivo, Boca Juniors, Wollongong eta Zamalek. B multzoan: Palmeiras, Olimpia, Galatasaray eta Al-Hilal. C multzoan: Real Madril, Jubilo Iwata, Hearst of Aak eta Galaxy.